

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Gobernuak administrazioko izapideak sinplifikatzea bultzatuko duela ziurtatu die Yolanda Barcina Lehendakariak Ingeniaritzako Lanbide Elkargoetako ordezkariak

Haiekin izandako bilkuran izapideak arintzeko bidean proposamenak aztertu dira, jarduera ekonomikoak abian jartzen laguntzeko xedez

Jueves, 29 de marzo de 2012

Nafarroako Gobernuak Lehendakari Yolanda Barcinak adierazi du foru-gobernuak administrazioaren sinplifikazioa eta arintzea bultzatuko dituela, herritarrek eta enpresek negozioak ireki ditzaten, lana izan dezaten eta enplegua eman dezaten, horretarako administrazio-eragozpenik aurkitu gabe.

Halaxe adierazi die Ingeniaritzako Lanbide

Elkargoetako ordezkariak; haiekin bildu da ezar daitezkeen lankidetzak eta partaidetzako mekanismoak aztertzeko administrazioko izapideak arintzeko eta bizkortasun nahiz segurtasun handiagoarekin aurrera eramateko.

Zehazki, bilkuran izan dira: José Miguel del Amo Villarías (Aragoi, Nafarroa eta EAeko Nekazaritza Ingeniarien Elkargoko ordezkaria), José Javier Boulandier (Nafarroa eta Errioxako Nekazaritzako Ingeniari Teknikoen Elkargoaren batzordeko kidea), Miguel Iriberry eta Elena Alemán (Nafarroako Industri Ingeniarien Elkargoaren dekanoa eta gerentea, hurrenez hurren), Gaspar Domench Arrese (Nafarroako Industri Ingeniari Teknikoen Elkargoaren dekanoa), Antonio Rodríguez (Nafarroako Industri Ingeniari Teknikoen Elkargoaren gerentea), Miguel González García (Espainiako Iparraldeko Meatze Ingeniarien Elkargoaren dekanoa) eta Enrique Aresti Pardo (EAE, Nafarroa, Errioxa eta Soriako Meatze Ingeniari Teknikoen Elkargoaren dekanoa).

Aipatutako Lanbide Elkargoetako ordezkariak (7.000 profesional baino gehiago direnak) Lehendakariari helarazi diote prozedura horien hobekuntzan Administrazioarekin lanean jarraitzeko borondatea, zuzenean Nafarroaren ekonomia eta garapenari eragiten diena. Egia esan, Nafarroako Gobernuak eta elkargoek sei urte baino gehiago daramatzate ildo horretan laguntzen eta lanean; alde horretatik, elkargoek era aktiboan parte hartu zuten Administrazioa Sinplifikatzeko Neurrien 15/2009 Foru



Barcina Lehendakariak ingeniaritzako lanbide-elkargoetako ordezkariarekin izandako bilkuraren une bat.

Legea lantzeko orduan.

Orain, profesionalen talde horrek laguntzen nahiz parte hartzen jarraitu nahi dute, protokoloak lantzen eta haiek beraien elkargokideen artean hedatzen, eta gizarte zibila, oro har. Zerbitzua emateko bokazioagatik, irizten dute beren betebeharra jarduerak lehenbailehen abian jartzea dela, ahal den segurtasun-berme handienarekin.

Hala, egin beharreko ekintza batzuk, Lanbide Elkargoen iritziz, jardueren sailkatze berri bat abian jartzea izango zen haren ingurumeneko eraginaren arabera; epeak murriztea; edukia berriz zehaztea eta aurkeztu beharreko dokumentazioaren garrantzia irizpideak bateratzeko; izapideak arindu eta erraztuko dituzten teknologia digitalen erabileraz gain.